BIZITEGI ERAIKINA **NAFARROA HIRIBIDEA 8**
D MAILA





Egilea eta data: Lucas Alday; 1932

Deskribapena
Kantoiko eraikina, behe oina, jatorrizko sei goi oin eta 1972ko jasodura atzeraeman bat dituena. Jasodura egiteak kantoiko dorre gailen bat ezabatzea ekarri zuen berekin. Fatxada entokatua goi oinetan, eta xaflatu etena behe oinean. Konposizio enfasia kantoiko alakan, eta begiratokia eta balkoia txandakatuta. Udal Artxiboan ez dago eraikin osoaren eraikuntza proiekturik, baizik behe oinari buruzko bat, 1932koa.

Babes erregimena
1. Erregimen orokorra.
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (7. goi oina).
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
      * Behe oineko fatxadaren eta baoen konfigurazio bateratua; horretarako, proiektu bat prestatuko da fatxada horren tratamendu global eta bateratua zehaztuko duena, eta eraikuntza osoaren babes erregimenera egokitzea justifikatzen duena, hori tarte edo faseetan gauzatzeari kalterik egin gabe.
      * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.